

Adierkide:

Noan ahalik laisterren zuzari erantuten.

- 1.- Hostegizaiaren kopia bat igortzen dicit. Hori inprimotarik ez dugun bitartean, hemen ez genduke ezere zalalpenik izanenu. Lehenbaitlehen beharko genduke, beraz.
- 2.- Argazki horietatik ez dut urte biak eman ditakenezunik, bata (kantejiko) onaliko ilun baitago. Nik esango nuke, eman litezkeela liburu biak argizki berarekin, arpaian sinadura dutela. Besteren bat nahi bazenu, esango zenuidake.
- 3.- Azaleko titulua (zuen eta zure aleak) desbordin eman liteke. Arrazoiak: hemen go liburutegiaren liburuak saltzeko, hobe duzu noski bi liburu arnas diferentek bezala agertzea, bi titulu desberdunekin, eta bi tomua elkarren ostean bezala agerrarazi gabe. Hori bai, berridan emango litake hien zenikusiaren berr.

Jaizki ulertu ez baitzuzt, zuen bi liburuek titulu nagusia berdina
eramanen lukete eta azpitik bi subtituluak izanen lirake des-
berdinak. Bigarren tomuaren titulufekoa zein izanen lirake
zuentzat? "Iritxi eta bizi", esate batiataroko? Besteren bat?

Saldara juxu hauen erantzenen zai gelditzen naitzazu, il honen
azkeneko dena imprimaturik eduki nahi lirake. Izarkolatik
esaten didotenez berehala izanen dituzu eskuitan bigarren tomu-
ren probak.

Zure esanetara.

Josela Intxaurti.

Tolosa, 1971-ko uztailaren 15

Piarres Lafitte jauna
Uztaritz

Adiskide min:

Gure azken elkar ikustearen galderei erantzunaz, zenbait berri bihali nahi nizkizuke.

Nere azken eskutitzean esan nizkizunak gogoan ukanik, beste puntu batzu aztertu beharko ditugu.

Eskuartearen, memento hontan, dudan kopian ez dut garbi ikusten non dauden hamaikagarren kapitulutik (Dérouleède) hemezortzigarrenerakoak (Léon XIII). Hori azterkatu beharko dugu.

Hiztegiarena kasik egina dago, eta Euskaltzindiaren bilkurakoan edo, emango dizut, etsamina dezazun.

Horiek hola, beste zerbait dugu orain ikuskatu beharko duguna. Inprimategitik esan zaidanez, guk uste genuen baino ere^{ber} gehun bat horrialde gehiago ukanen ditu liburuak: uste dutenez, 464 bat plama. Sobera luze, ikusten duzenez. Zer egin liteke? Begira zer pentsatu dugun.

Bi liburu izanen lirake (18 x 11 zm.): bata, zure sarrera eta lehenen partearekin emanen litzake. Zein titulu? Pentsatu ditugu batzu. Honatx: 1.- Gizonak, bitarte. 2. Gizonak, aurpegi. 3. Gizonak eta izanak. Liburu hau, hiru liberratan emanen genizueke (3 NF).

Bigarren liburuak nere sarrera historikoa eta beste bi parteak izango litzuke. Zein titulu? Liburu bakarrarentzat pentsaturik geneuzkanetatik bat:

1. Kontu: ba da Errepublikarik!, 2. Errepublika: bizia ala euskara!, 3. Egunean eguneko borroka bat. Liburu hau ere hiru liberatan eman genezake (3 NF).

Harriturik naiz inprimategitik esan didatenarekin: ez nuen uste inondik ere hoinbeste horrialde izan zitzazkeenik. Gure kolekzionerako luzeska da, liburu bakarrean ateratzeko. Honegatik pentsatu dut beste bide hau. Egin ditugu, dato berri hauek eskuartean ditugula (eta zuek 500 ordez, 1000 ale hartuko dituzuela) kontuak, baina esaten zaidan 464 horrialderekin, nahi ta ez, gora doa dena.

Ba da beste bide bat ere, zuentzat hobeki etor daitekeena: bi liburuok bakarrean emango genituzke zuentzat, bainan hemen bitan inprimatuko genituzke. Pentsa zazu. Beharbada, zuentzat ere hobeki letorke, saltzeko-eta, bi liburu ongi merke eskaintzea: bakoitzak berrehun horrialdetik gora lituzke eta hiru liberatan eman genezake alea. Dena batera egingen balitz, sei libera.

Euskaltzaindiaren bilerara etortzen bazera, komeni litzaidake orduan dena erabaki, eta ados bagina, inprimategira eramatea. A, eta ahantzi gabe: hemen esaten den horrialdetatik behera geldituko bagina, salneurria ere, neurri berean, merketu egingen litzake.

Izan ongi. Zure berrien zain gelditzen natzaizu. Agur.

P.D. Beharbada, iduriko du titulu horiek ez dutela zure asmoaren berri ematen; bainan ondoan igortzen dizudan azalaren maketan ikusiko duzu, noski, beste nolabait jasotzen dela ideia hura.

Tolosa 1971 - IX - 14


Piarrres Lafitte kalonjea
Astaritz

Taun onaitia:

Zure lana lehenbaitleku inprimaria
ra eraman malurik, ongi letorkipuke noski Baidonau
elkarrekin mintaketa.

Datorren asteartean, hamaiketean, Cordelierr
karrikara izanen naiz, inprimaria, eta gero Kus-
kal Museoan. Istimateko nuzuke eskur-artean
dukezuna ekariren bazenit. Honela lehenen tomua,
bederen, inprimakera eraman dezagun.

Zure isanitara madukazu beti bezala. Izan
ongi eta laister arte. Biluztez agur.



Piarres Lafitte jauna
Uztaritz

Adiskide min:

Eskerrik asko zure urteberrietarako agurratik. Nik ere beste hainbeste opa dizut. Izan zoriontsu hasi dugun urtean!

Gure lehenen liburua datorren aste erdirako egina izango dela uste dut, eta honegatik --Haritzelhar jaunak esanari jarraituaz--, Mintzaira, surpegia: Gizon! horren 1.000 aleak zuen eskuetara hel daitezen, hemen baimen bide batzu urratu behar ditut. Honetarako, zuengandik zenbait berri nahi nuke ukan:


1. Noren zuzenbidera, adrezara, bidali behar dira? Euskal Museora?
Eta nola da honen zuzenbidea?
2. Non jasoko dituzue, Donostian ala Irunen?
3. Liburuak jaso eta zenbat denborara ordainduko lirake?
4. Nola ordainduko litzake? Neretzat errazena treke bidez izango litzake.

Pontu hauk argitu beharko ditut, eskuartean daduzkadan eskabide-paperak, Madrilera zuzendu behar ditudanak alegia, hori dena eskatzen baitidate.

Liburua eskuartean dezadan bezain laister igorriko dizut horra eta gainerakoak eramateko Madrileko baimenei itxaron beharko diegu.

Oraingoz, zuen erantzunaren zai gelditzen naiz, zuenak jakin ordutik hemen paperketak egiten has nadin.

Izan ongi, eta zure esanetara nadukazu.



N.B. Lehenen liburua jasotzeko esango dizkidazunak bigarrenarentzat balio ez balute, adieraziko didazue erantzutean, bietarako kondizione berdinetan egingo baitut, bertzenaz, eskabidea.